

plazara

'Ura eta Garapen Iraunkorra' nazio-arteke erakusketan izan ziren Euskal Herriko Unesco zentroko ordezkariak. Josu Sanz zentroko

Ingurumen Saileko arduradunak gogorarazten digu 1.200 milioi lagunek ez dutela edateko ur garbirik, datu bat ematearren. Era-

kusketan, krisi horretaz hitz egin zuten, baina baita horrek berpizten dituen baloreetaz eta elkartasun neurri posibleetaz.

Josu Sanz *

Ura, bizi iturri

Orain aste gutxi amaitu zen Zaragozan *Ura eta Garapen Iraunkorra* izeneko Nazio-arteke Erakusketa. Bertan, milaka euskalduni egin zitzaigun dei, *uraren festa handian* parte hartu eta lan egitera. Erakusketarako eremuetaz gain, iritziak trukatzeke eta eztabaidarako gune interesgarria ere izan da EXPOa. Bertan izan garenok, ikuspegi desberdinak izan arren, geure mugetatik haratago begiratu nahi izan dugu, munduko ur-krisiari buruz ozenki hausnartzeko, jarra ireki eta eraikitzaileaz.

Zenbait zifra gogoratu ditugu berriz; izan ere, behin eta berriz aipatuagatik ere, gordinak zaizkigu oraindik: 1.200 milioi pertsonak, ia gure planetako biztanleriaren bostenak, ez dute ur garbirik, eta 2.600 milioik ez dute saneamendu duinik; hau da, ezta komun-zulo sinpleena ere.

Gai al gara buruari eragin eta Euskadin halako egoerarik irudikatzeke? Alegia, zirkinik ere egin gabe geratuko al ginatke, Euskadin egunero 5.000 haur hilko balira urarekin lotutako gaixotasunen ondorioz –beherako arrunt baten ondorioz, adibidez? Zer egingo genuke, baldin eta horrez gainera ura salgaitzat hartuko balitz, eta ez ondasun publikotzat, eta, horren ondorioz, ordaintzeko aukera luketenez bakarrik izango balute ura bermatuta?

Bada, egoera horretan bizi dira munduko leku gehienetan. Milaka milioi pertsonak soldataren zati handi bat erabili behar dute ura erosteko; emakume eta neskatok hainbat kilometro egin behar dituzte oinez; familia eta herrialde ugari azpigarapenaren



MIKEL ARROIABE

kateetan lotuta bizitzera kondaturik daude; eta saneamendu eza dela-eta jende ugariaren eguneroko bizimoduak ez da duina. Hori guztia ura kudeatzeko politika kaskarren ondorioz gertatzen da, eta ez baliabide ezaren ondorioz.

EXPOn izandako adituek adierazi dutenez, gainera, egoera horrek okerrera egingo du zenbait faktoreren ondorioz; klima-aldaketa da horietako bat. Munduko prezipitazio-kopuruak behera egingo du –batez ere, zona idorretan–, eta horrek areagotu egingo du basamortutze-arriskua.

Baina EXPOa baliagarria izan zaigu, era berean, krisi honi aurre egiteko onuragarriak izan daitez-

"Milaka milioi pertsonak soldataren zati handi bat erabili behar dute ura erosteko"

"Hortzak garbitzean iturria ixtearekin ez dugu krisia konponduko; baina ekintza horiek ere lagungarriak dira"

keen zenbait baloreri sendo eusteko; besteak beste, garapen-bidean diren herrialdeekiko lankidetzareagotzea; jabetzea teknologia, bera bakarrik erabilia, ez dela irtenbidea; natura-ekosistemen gutxieneko ur-beharrak aintzat hartzea; kontuan hartzea ezin dugula ur-eskaria edozein beharren gaintetik ezarri; ohar-tzea urak eragin handia duela ingurumenean eta ekonomian, eta horren kostuak geure gain hartu behar ditugula; aintzat hartzea ura ondasun publikoa dela eta denoi bermatu behar zaigula eskuragarri izatea.

Azkenik, esan daiteke EXPOa oso baliagarria izan dela ideia interesgarriak eta irtenbide berriak aurkezteko. Esate baterako, Uraren Tribunal, hausnartarako eta eztabaidarako eremurik ofizialena izan den horretan, euskaldunok jakinarazi genuen etorkizuneko ur-kanonaren parte bat beharrik handiena dutenei laguntzeko erabiliko dugula. Hau da, gai izan gara kudeaketako gure barne-errotak –ur gehiegi kontsumitzeagatik ordaindu beharreko kanona– mundu osoko erronken alde bideratzeko, beste herrialde batzuetan ur-eskubidea ukaturik dutenei emango baitiegu diru horren zati bat.

Hortzak garbitzean iturria ixtearekin ez dugu munduko ur-krisia konponduko; baina ekintza txiki horiek, beste handiago batzuekin batera –esaterako, euskal ekimen horrekin batera–, lagungarriak izan daitezke.

*Euskal Herriko UNESCO Zentroko Ingurumen arduraduna da Josu Sanz.

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Danbakako saioetara bazoaz?

BAI	%50
EZ	%50

> AUTOBUSA

Bai, ni fango naiz egunen batian, baina komeniko zan Goienak autobusa ipinttia Elgetaraiño fateko. Lagun batzukin fango naiz kotxian.

Iratxe

> LAGUNAK IKUSTERA

Bai, baina lagunak jotzen dutenean bakarrik.

Joseba

> IBARRERAKO BAKARRIK

Ez dakit. Gehiago gustatzen zitzaidan Debagoienarako bakarrik zenean. Nik uste dut hemengo taldeentzat bakarrik izan beharko zela.

Patxi

> GUSTUKO EZ

Aurreko edizioetan ez naiz joan eta oraingoan ere ez daukat asmorik. Ez zait musika gustatzen.

Maria

KAMISETA ETA GUZTI

Ni joan nintzen lehenengo urtean eta bigarrenean ere bai. Aurten ere igoko naiz. Kamiseta ere erosiko dut.

Iñaki

DATORREN ASTEKOA: Arduratuta zaude bankuen egoerarekin?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

ten duela abstenituz, eta hain zuzen, horixe nahi omen dute errepublikanoek (...), parte hartze handiak demokratei egiten dielako mesede.

Hauteskunde kanpainan ez ezik, telefonoen merkatuan ere ekaitza agertu zen atzo, BlackBerry konpainiak Storm telefonoa aurkeztu baitzuen, telefono bat ukipen pantaila bat duena, iPhone bezala (...). Geroz eta garbiago dut ordenagailu eramangarrien baliabide gero eta gehiago sartuko direla aparailu horietan, eta berandu baino lehen, horrelako batekin ibiliko garela batetik bestera, erabat konektatuta.

Agur eta ohore

Ainhoa Lendinez

www.elgoibarren.net/content/view/1248/39/

Bart ez dut lo sakonik egin. Atzo ezkila hotsak nituen buruan (...). Eta ezkila hotsek zugana eraman naute. Joan zara. Ikaragarri sufrituta. Ezin esango dizut orain, lehen esan ez dizudanik. Baina paperak zuriz uztea baino gauza gogorragorik gutxi da. Uda aurretik joan behar omen zenuen, eta uda ostean joan zara. Negua baino gogokoago

zenuelako uda, seguru. Negu gorriari ihes egin nahi izan diozula pentsatuko dut beti, eta udaberriko lore artean imajinatuko zaitut zure bide berrian. Izan dadila loretsua hemen izan duzunaren pare. Liburu bat besapean, eta irribarrea aurpegian (...).

Euskal Literaturaren urrezko orrietan geratuko zara betiko (...). Baina ororen gaintetik, gertu izan zaitugunok lagun, aholkulari eta osaba izango dugu gogoan beti. Zenbat on jaso dugun zugandik, zenbat oroitzapen utzi diguzun.

Izan zaitetz beti zu, osaba Gotzon laguna.

koplak

Julen Iriondo

Erantzunen bila

Urrian hogeita bosterako ez badaukazue planik lasai egin erantzun ematen ez duzue-eta lanik.

Ziurtatu ziguten kontsulta egin egingo zutela baina berriro geratu gara besten menpeko bezela.

Herri hontan bihurtu bazaigu galdetzea be pekatu hemen zer egin leiken ta zer ez behar dute esplikatu

Ez dakit balioko zukeen kontsultak ezertarako, kontua da ez dela egingo debekatu dutelako.

Urteak badoaz eta gaude betiko leku berean. Inoiz joko al dute indartsu kolpe bat mahai gainean?

Urria, azaro, abendua, urtarrila ta otsaila denbora luzez segi beharko dugu erantzunen bila?